



DONEKUNTZA - BIDEA

(Daraike)

Ta lekaimeok neuk neure ametsetan nekusazanak langoak izan ezkerro, euron onoimenen artean nire utsak aintzat artzekoak be elitzakezan izango, ta ofela neronek be Jaunari zerbait atsegin emon al izango neuskion; eta giñan guztiok Eleizearen aldezele ta irakasle diranen alde otoiketean jardunaz, neure Jaun oneri zerbait lagunduko geunskion, ainbeste on egin dautsen askok ain naigabeturik dauken ezkerro. Izan be, ba-dirudi azpisuge ofeik bañiro Gurutzean untzetu nai dabela, ta non burua ezafi be eztautsela itxi nai.

Ene gaizkatzale maitea, lertu-beaŕfean jarten yat biotza au gogoratzean! Zertan diardue oraingo kistaŕak? Geyen zor dautzuenak, adiguririk andienak egin dautsezuezanak, adizkidetzat aukeratu dozuzanak eurak, ikurtonen (sakramentuen) bitartez lagun egin ta emoten zayakezanak eurak, zeuri atsekaberik geyen emoten beti? Ez al dabez, ba, naikotzat eurakaitik jasan dozuzan oñase guztiak?

Ezta ezer ene Jauna, ezta ezer orain luditik alde egiten dauanak dagiana. Zuri ain begirune gitxi ba' dautzue, guk zer uste dogu? Zuri baño itzal andiagorik zor ete dauskue, ba, guri? Zer onik egin dautsegu guri adizkide azaltzeko? Jaungoikoari eskeŕak, azteri nas-

kagafi a barik gagozanok beñipein, zeri begira gagoz, azteri ofek kutsutuak txerenenak dira-ta? Sari edera irabazi dabe oneik, ondoren edera eurekanatu dabe euren atsegiñen ordeiz; betiko sua. Eurek dira efudun; alan be, ainbeste gogo (arima) galtzen ikusteak biotza lertzen daust. ¡Afen ez al dira galduko geyago!

Kisto'gan bat garean ene aiztak! Lagundu egidazue Jaunari auxe eskatzen; ofetarako batu zaitue emen; orixe da zuen elburua: ofa -jo bear dabe zuen ardura guztiak, ofa zuen gurariak, ofa zuen negar ta eskariak, ta ez, ene aiztak, ludiko arazoetara. Niri neuri, ludikoak eurentzat Jaunari etxeak eta ogasunak eskatzeko afenka datorkiguzanean, erukiz bare eragiten dauste, ta gogoa iluntzen dauste; ta eurentariko askok ogasunak eta eskatu bearean, ogasun guztiak zapaltzeko adorea eskatuko ba'lebe, obe. Uste onez dabiltz, ofaitio; ofegaitik eskatzen daben lez egiten dogu; baña, neure ustez, olango gauzetan Jaunak ez entzun egiten daust beti. Sugafetan dago ludia, Kisto bafiro epaipetu-naiez dabiltz, esatea dan lez, ainbeste guzur ezarten dautsez-ta, bere Eleizea lufera bota nai dabe; ta oraindik ofelako zeren-eske? Ta bear bada, Jaungoikoak eskaturikoa emon-ezkero, arima bat gitxiago geunkake zeruan! Ez, ene aiztak, ez, ezta orain Jaungoikoagaz ofelako ergelkerietan ibilteko garaia.

Egia da, luditafak poza artzen dabe zerbait laguntzen dautsegunean, eta al dala zerbait laguntzea eztago txarto; baña, aitu ondo, eztira oneik ain arduraz Jaunari eskatzeko gauzak.

BIGAREN ATZALBURUA

Gorputzaren bear-izanen ardurarik eztala izan bear.

Txirotasunaren ondasunak.

Luditafen edera ez egiteafen, ez uste, ene aiztak, eztozuela zer janik izango. Janaria zuzentzeko inoz be

ez egizue, aŕen, giza-asmakerietara jo, gosez ilgo zarie
 -ta, bai ondo irabazita gero il be. Begiak zeuen Mai-
 tearengana zuzendu; berak elikatuko zaitue; bera pozik
 izanezkero, orañarte ikusi dozuen lez, engaraz ba'da
 be gitxien maite zaituenak eurak emongo dautzue zer
 jan. Baña zeuori dagokizuenta eginda gero be, ilgo ba'
 ziñe, ¡bai zoriontsuak Joseba Deunareneko lekaimiak!
 Jaungoikoaren, ez auxe iñoz aitzu: jarauntsia itxi do-
 zuenezkero, itxi janariaren ardurea be, bestela dana da
 alpeñik. Jarauntsia dabenak beukiez ardura ofeik, bi-
 dezkoa ta beañezkoa da eurentzat-eta; baña guk ez,
 ene aitzak, guk ofetariko ardurarik eztogu izan bear;
 ergelkeria litzake. Besteak dabenari begira egotea,
 iñoren etxearen ardura izatea litzake ori. Ta zuk ardu-
 ra ori izan aŕen, besteari biotza igituko ete jako edo ta
 zuri ukarñik emoteko gogorik etofiko ete jako? Guztiak
 igitu daikezanari, diru ta dirudunen Jaunari itxi egiozu
 ardura ori; berak aginduta etofi gara ona; egizkoak
 dira bere itzak; eztabe utsik egingo; zeru ta luñak le-
 nago ondatuko dira. Gagozan beti beragaz, ta ez bil-
 duñik izan, bera be beti geugaz izango dogu; ta iñoz
 itxiko ba'gaitu, geure on andiagoren baterako izango
 da. Bere deunak be il egiezala isten ebanean, etzan
 euren eriotzaren bidez zeruetako aintza ta zoriona gei-
 tzeko? ¡Axe bai ordain edeña: emeko bizitza ain arin
 amaitu ta betiko asebeta artzea!

Ene aitzak, diñodan au gañantsitsua da-ta, sartu
 ondo gogoan nire eriotz-osterako batez be. Ofegaitik
 isten dautzuet idatzita, ni bizi nazala, itzez be gogora-
 tuko dautzuet-eta. Neure buruan ikusita dazagut txiro-
 tasunak dakaren ain irabazi andia. Ofegaitik nik gitxien
 dogunean, ardurarik be gitxien izaten dot; lañegi dogu-
 nean, bañiz, gitxiegi dogunean baño atsekabe andia-
 goa izaten dodala Jaunak berak daki.

(Jañaituko da)

IGOTZ OBA